

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

133. zenbakia

Data 1996-07-10

9085 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

Gipuzkoako Foru Aldundia

Uztailaren 4ko 7/1996 FORU ARAUA, Sozietateen Gainerako Zergarena.

16. artikulua. Balorazio arauak: elkarri lotutako entitateen arteko eragiketak.

1. Zerga Administrazioak, iraungitze aldiaren barruan eta merkatuko ohiko balioaren arabera, elkarri lotutako pertsona edo entitateen arteko eragiketak baloratu ahal izango ditu kasu honetan: elkarri lotutako pertsona edo entitate guztiak kontuan hartuz, hitzartutako balorazioak berarekin ekarri duenean Espainiako tributazioa txikiagoa izatea merkatuko ohiko balioa edo tributazio horren gerorapen bat aplikatuz zegokion tributazioa baino.

Administrazioaren baloraziotik eratorritako zerga zorra, berandutza interesen kalkulua eta iraungitze epearen konputua barne, elkarri lotutako pertsona edo entitateekin eragiketak burutu ziren zergaldiari egotziko zaio, ondorio guztietarako.

Administrazioaren balorazioak ez die eragiketa burutu duten pertsona edo entitate guztiei ekarriko zerga honetan ez eta, hala behar denean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan ere, eragiketatik benetan eratorritako errenta baino handiagoagatik zerga ordaindu beharra. Merkatuko ohiko balioaren arabera baloratzeko jardunbidea finkatuko da erregelamendu bidez.

2. Ondoko hauek hartuko dira elkarri lotutako pertsona edo entitatetzat: a) Sozietate bat eta bere bazkideak.

b) Sozietate bat eta berekontseilariak edo administratzaileak.

c) Sozietate bat eta bere bazkide, kontseilari edo administratzaileen ezkontideak, aurreko ahaideak eta ondorengo ahaideak.

d) Merkataritza Kodeko 42. artikuluaaren arabera sozietate talde bera osatzeko beharkizunak betetzen dituzten bi sozietate, ondorio horietarako bertako 43. artikuluan jasotako baztertze arrazoiak aplikagarriak izan gabe.

e) Sozietate bat eta beste sozietate bateko bazkideak, baldin eta sozietate biak Merkataritza Kodeko 42. artikuluan jasotako sozietate talde berekoak badira, ondorio horietarako bertako 43. artikuluan jasotako baztertze arrazoiak aplikagarriak izan gabe.

f) Sozietate bat eta beste sozietate bateko kontseilari edo administratzaileak, baldin eta sozietate biak Merkataritza Kodeko 42. artikuluan jasotako sozietate talde berekoak

badira, ondorio horietarako bertako 43. artikuluan jasotako baztertze arrazoiak aplikagarriak izan gabe.

g) Sozietate bat eta beste sozietate bateko bazkide edo kontseilarien ezkontide, aurreko ahaide edo ondorengo ahaideak, baldin eta sozietate biak Merkataritza Kodeko 42. artikuluan jasotako sozietate talde berekoak badira, ondorio horietarako bertako 43. artikuluan jasotako baztertze arrazoiak aplikagarriak izan gabe.

h) Sozietate bat eta horrek, gutxienez kapital sozialaren 100eko 25ean, zeharka partizipatutako beste sozietate bat.

i) Bi sozietate, baldin eta bazkideak nahiz ezkontide, aurreko ahaide edo ondorengo ahaideak zuzenean edo zeharka gutxienez kapital sozialaren 100eko 25aren jabeak badira.

j) Espainiako lurraldean egoitza duen sozietate bat eta atzerrian dauzkan establezimendu iraunkorrak.

k) Sozietate kooperatiboen taldeen erregimenean zergak ordaintzen dituen talde bereko bi entitate.

l) Bi sozietate, baldin eta horietako batek besteari buruzko erabakiak hartzeko ahalmena badu.

Elkarren arteko lotura bazkide-sozietate harremanetan oinarritzen denean, partaidetza 100eko 5ekoa edo handiagoa izango da edo, bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatutako balioak izanez gero, 100eko 1ekoa edo handiagoa.

Apartatu honen ondorioetarako, Merkataritza Kodeak 42. artikuluan aipatutako sozietate taldea, izan ere, urteko kontu kontsolidatuak egiteko abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretu bidez onartutako arauen lehen kapituluko 1. sekzioan jasotakoa izango da.

3. Merkatuko ohiko balioa kalkulatzeko, Zerga Administrazioak metodo hauek erabiliko ditu: a) Ondasun edo zerbitzuaren nahiz antzekoen merkatuko prezioa. Azken kasu horretan, hala behar denean, zuzenketak egingo dira baliokidetasuna lortzeko, bai eta eragiketaren berezitasunak kontuan hartzeko ere.

b) Aurrekoaren ordeztu beste hauek erabil daitezke: a) Ondasun eta zerbitzuen salmenta prezioa, honelaxe kalkulatu: horien erosketa prezioaren edo produkzio kostuaren balioari gehituko zaio sujetu pasiboak pertsona edo entitate independenteekin hitzartutako antzeko eragiketetan lortu ohi duen margena nahiz sektore berean jarduten diren enpresek pertsona edo entitate independenteekin hitzartutako antzeko eragiketetan lortu ohi duten margena.

b) Erosleak ondasun eta zerbitzuen birsalmenta prezioa, ondoko hau gutxitua: sujetu pasiboak pertsona edo entitate independenteekin hitzartutako antzeko eragiketetan lortu ohi duen margena nahiz sektore berean jarduten diren enpresek pertsona edo entitate

independienteekin hitzartutako antzeko eragiketetan lortu ohi duten margena. Hala behar denean, erosle horrek ondasun eta zerbitzu horiek eraldatzean izan ditzakeen kostuak kontuan hartuko dira.

c) Aurreko metodoak ezin direnean erabili, eragiketaren emaitza osoaren banaketatik eratorritako prezioa aplikatuko da, beren gain hartutako arriskuak, aktiboak eta aipatu alderdiek bete dituzten funtzioak kontuan hartuz.

4. Entitate lotu batek ikerkuntza eta garapeneko iharduerei emandako kontribuzioen gastuak kenkaritzat hartzeko, beharkizun hauek bete behar dira: a) Lehendik egindako kontratu idatzi baten indarrez exigigarriak izatea gastu horiek; kontratuan proiektua edo proiektuak zehaztu behar dira eta horien emaitza erabiltzeko eskubidea eman behar du.

b) Ikerkuntza eta garapeneko iharduera burutzen duen entitateak benetan izandako gastuak banatzeko irizpideak, izan ere, kontribuzioak ematen dituzten entitateek proiektuaren edo proiektuen emaitzak erabiltzeko duten eskubidearen edukiarekin razionalki bat etortzea.

5. Elkarri lotutako entitateen artean emandako kudeaketa-laguntzako zerbitzuetan izan diren gastuak kenkaritzat hartzeko, baldintza hau bete behar da: gastuen zenbatekoa aurretik egindako kontratu idatzi batean oinarrituko da. Zerbitzuak ematen dituen entitateak izandako gastuak banatzeko irizpideak finkatu behar dira kontratuan. Hona hemen itun edo kontratuaren beharkizunak: a) Eman beharreko zerbitzuen izaera zehaztea.

b) Gastuak banatzeko metodoak finkatzea, jarraikortasun eta razionaltasun printzipioen arabera.

6. Sujetu pasiboek elkarri lotutako pertsona edo entitateen arteko eragiketak baloratzeko proposamen bat aurkeztu ahal izango diote Zerga Administrazioari, haiek burutu aurretik. Proposamena merkatuko ohiko balioan oinarrituko da.

Aurreko 4 eta 5 apartatuetan aipatutako gastuei buruzkoa ere izan daiteke proposamena.

Proposamena onartzeak ondorioak izango ditu onarpen egunaren ondoren hasten diren eragiketei begira, baldin eta Administrazioak onartutako proposamenari jarraiki burutzen badira. Hiru zergaldiko baliagarritasuna izango du onarpenak.

Proposamena onartzerakoan zeuden baldintza ekonomikoak nabarmen aldatzen badira, proposamena aldatu ahal izango da baldintza berrietara egokitzeko.

Zerga Administrazioak beste estatu batzuetako administrazioekin akordioak hitzartu ahal izango ditu, merkatuko ohiko balioa zehazteko.

Apartatu honetan aipatutako proposamenak ezetsizat hartuko dira horiek ebazteko epea amaitu ondoren.

Eragiketa lotuen balorazio proposamenak ebazteko jardunbidea erregelamendu bidez finkatuko da.